

232 EREDUA (“AITORPEN INFORMATIBOA: ERAGIKETA LOTUAK ETA PARADISU FISKAL GISA SAILKATUTAKO HERRIALDE ETA LURRALDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAGIKETAK ETA EGOERAK”) ONESTEN DUEN FORU AGINDUAREN PROIEKTUA PRESTATZEKO IREKITAKO JENDAURREKO ALDIAREN EMAITZA

232 eredua (“Aitorpen informatiboa: eragiketa lotuak eta paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak”) onesten duen foru aginduaren proiektua prestatzeko prozedura irekita, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean ezarritakoa betetzeko asmoz, foru agindu horren proiektua argitara eman zen Gobernu Irekiaren Atarian, eta 2018ko martxoaren 9tik 2018ko apirilaren 4ra arte eskaerak eta iradokizunak aurkezteko epea ireki zen. Epe horretan ez zen batere iradokizunik aurkeztu.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu da iradokizun bat ere aurkeztu gabe. Hortaz, bidezkoa da foru agindu horren tramitazio administratiboarekin aurrera jarraitzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 5ean.

**ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA
JURIDIKORAKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA**

Javier Zabaleta Zúñiga